

JON OÑATIBIA AUDELA
(1911-1979)

Jaunak eman beizula, Jon, merezi izan duzun atsedena. Inor izan bada apalki euskal kulturaren alde lan egin duena zu izen zara, Jon adiskide eta maisu. Baina apalki eta protagonismorik gabe egin duzun lan hori ez da isilean ahaztuko Euskalerrian bizia eta iraunkorra delako.

Ameriketatik etorri berria zinela elkar ikusi genuen Oiartzunen zure Euskal Show Gernikara ekartzeko asmoz. Gero Gernikako Marijesiak zirela eta Oiartzungo beste kopla batzu konparatuz hainbat hitz egin genuen eta gogoratzen naiz 1967.eko Abenduaren azkenerantz bidali nizula Marijesien grabazio bat. Donostiako "La Voz de España" egunerokoan argitara eman zenuen Gernikako Marijesietako "Bart Belenen" doinu eta hitzez euskara musika bidez erakusteko asmotan. Eta Tolosako Musika Lehiaketetan ere baten baino gehiagotan mintzatu ginen musika, euskara, dantza, txistu eta abarreko gaiak erabiliz. Horregatik, Jon adiskide, min handia hartu nuen 1979.ko Ekainaren 30 ean hil zinela jakin nuenean.



JON OÑATIBIA
(1911-1979)

Zoritzarrez gizon balliotsuok arinegi zoazte. Eta gu geratzen gara hemen zuen hutsunea bete ezinik. Baina zoaz lasai, ahalegindu behintzat egingo gara eta.

* * *

Jon Oñatibia Audela Oiartzunen jaio zen 1911.ean. Euskal kulturaren pizkundera ezagutu zuen txikitatik eta txistulari eta dantzari trebea izan zen gazetetatik. Zaragozako Unibertsitatean egin zituen Zuzenbide estudioak eta Imanol Lekuonak diozkunez, opor aldietan Nafarroako Erriberatik ibiltzen zen txistuarekin hango giroa alaituz eta dantzak lagunduz. Gerra denboran gudari izan ondoren euskaldun asko eta asko bezala ihes egin beharrean aurkitu zen, ez zuen txistua etxean utzi eta atzerrian, Parisen, txistulari lanean jarraitu zuen. Parisera iritsi berria zelarik han azaldu ziren Enrike Jorda, Julian Ajuriagerra, Paul Legarralde, Jose Etxabe, Jesus Luisa Esnaola, Gabriel Olaizola eta beste batzuren artean gure Jon Oñatibia. Denen artean Euskal Abesbatz eta Koreografi Talde bat sortzea erabaki zuten eta 1937.eko Abenduaren 18 an azaldu zen Pleyel aretoan *Eresoinka* taldea. Lau urtetan ibili zen Oñatibia talde honen barnean txistulari bezala 1941.ean Venezuelara jo zuen arte. Beste 13 urtetan ekin zuen Oñatibiak musika, dantzak eta euskara aztertzen eta zabaltzen Caracasen. 1954.arte hiriburuko Euskal Etxean eman zituen euskarazko klaseak, txistulari taldeak sortu zituen eta dantzariak ere jairik jai erabili zituen bere zuzendaritzapean. Eta azkenean, Ameriketako lana amaitzeko, 1954.ean Estatu Batuetara jo zuen Agirre Lehendakariaren aginduz Eusko Jaurlaritzaren mandatari gisan. Han ere lan ofizialetatik aparte bere hobbyrekin jarraitu zuen Atlantikotik Pazifikora bere dantzak eta txistu soinuak eramanez.

1960.ean berriz Euskalerrira etorri zitzaigun Oñatibia baina ez atse denetako asmoz, lanean jarraitzeko baizik. Larraun abesbatza eta koreografi taldea sortu zuen eta Ameriketako teknikak onartuz, Euskal Show asmatu eta bideratu zuen. Talde hauetarako lanean, hainbat musika lan egin zuen, bai txisturako baita ahotsetarako ere. Hor daude betirako berak egin edo harmonizatutakoak: *Gabon Gaba*, *Gabeko Izar*, *Jeiki gaiten kristauak*, *Poztu bedi*, *Din, dan, don*, *Ave Maria*, *Aunitz urtez*, *Xoxuak galdu du*, *Aintza gurutze*, *Agur Zuberoa*, eta abar. Dantza zuzendari ere izan zen eta horrez ganera dantza berri asmatzaile: 1966.ean dantza berrien txapelketa bat eratu zenean beraren *Donibane* dantzak irabazi zuen lehen saria.

Baina euskararen irakaskuntza zen Oñatibiaren ardurarik handiena. Egon zen mundu zabaleko toki guzietan euskara erakusten ari zen eta euskara landu eta zabaltzen. Caracasen zegoela sortu zuen *Argia* asterokoa eta New Yorken jarraitu zuen aldizkari hau astero kaleratzen, 1958. arte. Oiartzunen berriz auzotu zenean, Ikastoletarako andereñoak hezitzen ari zen sutsu eta pedagogiarako gaurko teknikak erakutsi nahiean, Catalunya Jose Serra Struch eta Ramon Fuster Rabes ekarri zituen Euskalerrira kursilo batzu ematera. Euskara erakusteko pedagogia berriak asmatzen hasi zenean, argi ikusi zuen Oñatibiak haurren bihotzetan hizkuntza sartzeko ezala odola, musika baizik, bide egokiena. Eta bere meto-

doa apurka apurka hobetuz, azkenean ondorio batetara iritsi zen: *Euskara jolas bidez* erakutsi behar zela eta izen buru hori jarri zitzaion bere metodoari. Baina haren euskararen aldeko sua ezen hor geratzen eta haurrak ez ezik nagusiak ere euskaldundu nahian ahalegindu zen *Método de Euskera Radiofónico* argitara emanez. Lan guztiau publikoki aitortu eta eskertu nahiean, Euskaltzaindiak Euskaltzain Urgazlea izendatu zuen Jon Oñatibia 1966.eko Azaroaren 25ean.

Istripuz joan zaigu hainbat alorretan maisu izan dugun Oñatibia Jauna. Haren hiletak Oiartzungo Parrokian, jendez gainezka, ospatu ziren, berrogei apaizek elkar-mezatan otoitz eginez. Han zegoen berak sortutako Lartaun abesbatza eta beste batzuren artean Oñatibiaren Ave Maria abestu zuten azken omenaldi gisan. Txistuak ere legundu zion hilibirarte. Ez da ez hil euskaldun hau haren lanak gure artean bizirik daude eta. Goian bego.

Jose Antonio Arana Martija